

ZUZENEAN



**OLENTZERO
KANTUZ**

jalgí hadi Baionara

MUSIKARIAK

Gitarra : Patrice Dumora « Watson »

Gitarra : Patxi Amulet (9)

Gitarrapala : Nat Cazarré

Bateria : Cédric Ilhardoy

Trikiritxa : Maddalena Luzzi

Arrabita : Marina Beheretche

PROIEKTUAREN SORTZAILEA ETA

KOORDINAKETA : Aitzol salaberria

KONTZERTU ETA DISKAREN ERREALIZAZIOA :

Maialen Errotabehere

OLENTZERO : Gilles Parot

MARI DOMINGI : Irati Salaberria

KEINU HIZKUNTZA : Evelyne Koenig

ANTZERKI KUDEAKETA : Arantxa Irigoien eta

Mathieu Lazkano

PLATO LAGUNTZAILEAK : Héléne Larre eta

Oneka Salaberria

SEKURITATEA : *Azkar - Full-contact* elkarte

ARGAZKILARIA :

Jean-Philippe Juen - *JPEG Studio* (Akitze)

GRAFISMOAREN KONZEPZIOA :

Isabelle Beigbeder - *mabulle design* (Baiona)

KANTU MOLDAKETAK

Patrice Dumora (Watson) : 1/2/3/4/7/8/10/13/14

Patxi Amulet : 9 - Sophie Larrandaburu : 6

Baionan Kantuz : 12 - Odei Barroso : 5

Noingo haur abesbatza: 11

TEKNIKARIAK

Zuzeneko soinu ingeniari ta grabaketaren

arduraduna : Xabi Pellarini

Platoaren teknikaria : Jean-Sébastien Soulard

Soinu laguntzailea : Gilles Pires

Argi teknikaria : Christophe Vaupré

Road : Fiorella Chumiento

Soinu, argi eta bideo hornitzailea : *Ace Event*

Kontzertu aintzineko argazki muntaketa :

Benoit Rilhac

Kontzertuaren bideo grabaketa : Baionako BTS

AudioVisuel ikasleak eta Beñat Lagoarde erakaslea

Kontzerturako argazki muntaketa : Cassin

lizeoko ikasleak eta Frédéric Nesprias erakaslea

DVD-aren montaketa : Jimmy Thirion (Uztaritze)

Diskaren nahasketa eta mastering :

Xabi Pellarini - *Laguna Records* (Miarritze)

Esker beroenak, bihotzetik, hurbil edo urrundik proiektuan lagundu gaituzten guzietan.

Esker bereziak Maider El Mejdoub Garat, Béatrice Bidart, Maider Iturrioz eta Maritxu Leizagoien, zuen engaiamendu eta zuen lana haundiarengatik.

Olentzero kantuz *jalgi hadi Baionara* cd-a,

Olentzeroren Lagunak elkarteak 2013an sortu da, Olentzeroren mezua bultzatu nahi zuten pertsona batzuek esker.

Lau urtez elkarteak lan egin du bereziki 3 arlotan :

- Olentzeroren itun bat sortuz , zutabeak ezarri gure kulturaren pertsonai honek bere erroak atxiki ditzan, ez dadila bihurtu ohitura komertzial bat.
- Euskal Kultur Erakundearekin : Olentzero pertsonaiaren inguruan web-guneak eta internet sareetan orriak sortzen, baita ere, argazkiak, ipuinak eta artxiboak biltzen.
- Olentzero iparraldeko eskualde guzietara igorri dugu, gure elkarteak urte guziz 35 bat ateraldietan parte hartzen du, Iparraldeko erdiak gutti gora behera.

Hiru arlo horiekin batera, Olentzeroren lagunak elkarteak *Olentzero kantuz Jalgi hadi Baionara* proiektuaren sortzailea eta bultzatzailea ere izan da.

Idea sinple batetik hasi dena : Olentzeroren kantuetaz bakarrik osaturiko lehen diskoa plazaratzea.

Proiektu bakar-pedagogiko-kultural eta federatzaile baten inguruan garatu da ideia, bi ardatz nagusiekin : Euskara eta Olentzero.

Idea hori segituz Baionako 10 ikastetexeko elebidun publikoak eta pribatuak, 3 ikastolak, 3 abesbatza baita Iruñako Lau Urrats dantza taldea eta Noaino San Miguel eskola publikoko lagunak bildu ditugu. Denek elgarrekin lan egin dugu, 2016-ko abenduaren 11-an Baionako Lauga salan kontzertu bat eskainiz.

Ekimen horretarako 394 ikaste-kantari bildu ditugu. Horrezgain Watson eta bere taldea, Maialen Errotabehera, Patxi Amulet, Odei Barroso eta Maite Duboué artista ezagunak izan ditugu partaide.

Agerraldia zuzenean grabatu eta eskuan duzun disko hau ekoiztu dugu.

Olentzeroren lagunak elkartearen izenean eskertzen ditut 3 urte iraun duen proiektu hontan lagundu eta sustengu gaituztenak, konfiantza egin digutenak baita ere disko hau erosi duzutenak.

Gora Olentzero, gora euskara eta gora Baiona!

Aitzol SALABERRIA

Olentzeroren lagunak elkartearen lehendakaria

CD d'Olentzero kantuz *jalgi hadi Baionara*

L'association *Olentzeroren Lagunak* est née en 2013 en réunissant des personnes animées par la volonté de partager et de développer le message d'Olentzero.

En quatre années, trois chantiers ont été ouverts :

- La rédaction d'une charte d'Olentzero afin que ce personnage continue à être enraciné dans la culture basque sans qu'il devienne un objet commercial.
- Avec l'Institut Culturel Basque : élaboration d'un site web et de pages internet avec photos, contes et archives.
- Olentzero est apparu dans tout Iparralde (Pays Basque Nord), l'association ayant assuré 35 de ses sorties par an, soit la moitié du nombre total d'animation autour de sa personne.

Un autre de ses chantiers majeurs a été l'opération *Olentzero kantuz Jalgi hadi Baionara* (Olentzero en chanson à Bayonne), conçue et produite par l'association.

Tout a démarré d'une idée simple : créer un disque avec uniquement des chants d'Olentzero.

Cette idée a été développée à travers une démarche pédagogique, culturelle et fédératrice autour de deux axes : La langue basque et Olentzero.

Ainsi 10 établissements scolaires bilingues publics et privés, 3 ikastola, 3 chœurs, le groupe de danse *Lau Urrats* de Pampelune et le chœur de l'école publique de Noain en Navarre se sont lancés dans l'aventure. Ce travail s'est concrétisé par le spectacle du 11 décembre 2016 à la salle Lauga.

394 élèves-chanteurs y ont participé, avec l'appui de Watson et de son orchestre ainsi que des artistes Maialen Errotabehere, Patxi Amulet, Odei Barroso et Maite Duboué. Le spectacle a été enregistré en direct pour produire ce CD.

Au nom d'Olentzeroren Lagunak, je voudrais remercier celles et ceux qui, dès le début il y a 3 ans, ont soutenu ce projet, celles et ceux qui nous ont fait confiance et vous, qui avez acheté ce CD.

Vive Olentzero, vive l'Euskara langue d'Olentzero et vive Bayonne !

Aitzol SALABERRIA

Olentzeroren lagunak elkarteko lehendakaria

CD *Olentzero kantuz jalgi hadi Baionara*

La asociación *Olentzeroren Lagunak*, fue creada en 2013 en Baiona con el objetivo de impulsar la figura de Olentzero y extender su mensaje. Durante esto 4 años, hemos estado trabajando principalmente en los siguientes frentes:

- Crear un pacto del Olentzero, con el que fortalecer y perpetuar la imagen de este personaje tan importante en nuestra cultura y evitar que se convierta en un simple icono comercial.
- Compromiso con el Euskal Kultur Erakundea (E.K.E - I.C.B.) para fomentar la presencia de Olentzero en la red de internet, creando y promoviendo páginas web en las que se recojan canciones, cuentos y fotos.
- Proyectar la figura de Olentzero en las 3 provincias de iparralde. Nuestro colectivo participa en unos 35 actuaciones cada año.

Junto con estas tres líneas de actuación, la Asociación *Olentzeroren Lagunak* ha sido la impulsora y creadora de *Olentzero kantuz Jalgi hadi Baionara*. Idea creada con un simple objetivo: publicar el primer disco musical con canciones dedicadas exclusivamente a Olentzero. Este proyecto pedagógico, cultural y federativo, se ha creado sobre dos pilares

fundamentales, que son el euskera y olentzero.

Siendo fieles a esa idea, hemos conseguido reunir a 10 centros escolares públicos y privados, 3 ikastolas y 3 corales de Baiona, junto el grupo de danzas *Lau Urrats* de Iruña y la escuela pública *San Miguel* de Noain. Hemos trabajado conjuntamente para poder ofrecer como resultado final, un concierto en la sala Lauga de Baiona celebrado el 11 de diciembre de 2016.

Para esta iniciativa hemos contado con 394 alumnos/as y cantantes, acompañados por Watson y su grupo musical. A todo esto hay que añadir la participación de Maialen Errotabehere, Patxi Amulet, Odei Barroso y Maite Duboué cómo artistas de referencia. El disco es el resultado de la grabación realizada en directo el día del concierto con el que se culmina el trabajo de estos 3 años. En nombre de la Asociación *Olentzeroren Lagunak*, quiero dar las gracias a todos los que nos han apoyado durante estos 3 años, a los que han confiado plenamente en nosotros y por supuesto a todo aquel que adquiera este disco.

**Gora Olentzero, gora euskara
eta gora Baiona!**

Aitzol SALABERRIA

Olentzeroren lagunak elkarteko lehendakaria

DROH



im

IGIT



JEAN MOULIN eskola

Baiona

CE2 - CM1 - CM2

Erakaslea **Jacqueline Boutin**

DRINGILIN DRON

Dringilin dron gaur Gabon
tripea betea daukat eta
besteak hor konpon

Galdara beta aza egosi
koloretxuak gorriak
brehala iruntsi neutsan
azkenengoko orriak

Hiru puntako askal batekin
sakatrapua bailitzan
ezti lapiko handizko bati
barruan huts huts egin neutsan







MARRACQ kolegioa

Baiona

6 garrenekoak
Erakaslea **Otxanda Larçabal**

EGUBERRI

Olentzero pentsatu eguberriari
guzieri eskaini nasaiki opari
ez badakizu, zuzen, nori zer ekarri
begiratu zuk, ere oi, telebistari

Eguberri eguberri dena kantu dena irri
herriz herri izan gaiten bakearen mezulari

Haur maiteak entzun nik zuen galdea
bainan amestu hura oraikoan badea
miserian da egun, nun nahi, jendea
duguna zati, dela neure ordrea

Oparien heltzea, nik ez dut hastio
zakuetan badut bake eta amodio
zuk ez kezkatu, haurra, ez baitu balio
nik jin artino erein zazu bozkario





LARGENTÉ kolegioa

Baiona

6 eta 5 garrenekoak

Erakasleak Maite Apezetxea eta Peio Etcheverry

GURE AITONA ZAHARRA

Gure aitona zaharra pipa hortzetan duela
aizkorra eta zahakua, Olentzero da
Zakua ikatzez beteta menditik jautsiko da
gau luze hau argituko da, Eguberri da

Argia, egiazko oparia
Argia, Eguberri da (bez)

Gaur egonen naiz beha, ezin dut hartu loa
Olentzero etorriko da, ene ikustera
Oparien banatzeko ez du nehor ahantziko
elkartasun eta bakea, Eguberri da



CHARLES MALÉGARIE eskola

Baiona


CE1 - CE2 - CM1 - CM2
Erakaslea **Nicolas Caussé**

IKATZEZ ESTALIA

Ikatzez estalia
Gure ikazkina
Txondorra utzi eta
Baionarat jina.

Argia dakarrena
ta berotasuna
luzeagoak dira
izanen eguna(k).

Milesker ikazkina
hau da berri ona
Olentzero izanen
da zure izena.



OIHANA ikastola

Baiona

4. eta 5. urtekoak
Erakaslea Itziar Aizpurua
Artista Odei Barroso



E



OLENTZERORI GUTUNA

1 Heldu da eguberri festaren eguna
ondoan familia ondoan laguna
guk erran nahi dizugu zer den nahi duguna
horregatik idatzi dizugu gutuna

2 Olentzero egun on, otoi adi egon.
Familiak behar du diru ta zorion.
Batzuk irribarrez ta batzuk negarrez,
batzuk badute dena, ta batzuk ezer ez.





Z



3 Olentzero herrira ongi etorria
Euskal Herrian baita arazo larria
ematen digu pena ta kentzen irria
ez dugu bi partetan nahi Euskal Herria

4 Janaria pobreentzat da oparia.
Guk sobera daukagu, ta botatzen dugu.
Haientzat da gogorra, guretzat zigorra.
Olentzero nahi dugu, denentzat altxara

5 Guk betidanik dugu euskara atsegin
Baionako dendetan erabili ezin
okindegietan ta karriketan berdin
euskaraz bizi nahi dut nire lagunekin

6 Hori da egia, biziki larria
guk kendu nahi dugu arrazakeria.
Ez du ezer erran nahi xuria ta beltza
pobreak ongi izatea da gure ametsa

7 Biziki zikina da itsasoko ura
gure munduan bada hainbat kutsadura
gertatzen denarekin ez gira gustura
Olentzero babestu ezazu natura

8 Kaixo Olentzero, orain eta gero,
hemengo janaria nahi dugu egunero.
Guk jan nahi dugu gure herrikoa
begikoa dugu biologikoa.



BUHAMINAK

Baiona

HORRA MARI DOMINGI

Horra Mari Domingi begira horri
gurekin nahi duela Baiona't etorri

Gurekin nahi baduzu Baiona't etorri
atera beharko duzu gona zahar hori

Hatoz hatoz zure bila nenbilen ni (bez)
goazen eta agurtu dezagun Baiona't heldu den
ikazkin hori (bez)

Irrintzi eta poza algarekin
hori behar dinagu guk elkarrekin

Pozez ohora (de)zagun Olentzer'ona
berak ekar dezagun gaur zoriona

Hatoz hatoz zure bila nenbilen ni (bez)
goazen eta agurtu dezagun Baiona't heldu den
ikazkin hori (bez)



HAIZ'EGOA

Baiona

OLENTZEROREN OPARIA

Astoa gaixo dago.
Olentzero tristerik.
Txabola ikatzez beterik,
pilan-pilan udazkenetik.
Ez dauka txabola uzterik,
ez ethez etxe ibiltzerik.

Horra, Olentzero pipa hortzetan.
Gauetz ibiltzen da negu hotzetan.



Larri daude auzoan.
Ikatzik ez neguan.
Han egongo da Olentzero,
suaren ondoan txit bero.
“Noiz jaitsiko da txabolatik?”
galdetzen du Josepantonik.

Bi lagun joan dira
elurretan mendira.
“Aizu, Olentzero, zergatik
ez duzu ekartzen ikatzik?”
“Ezin dut ikatzik banatu,
mesedez, astoa sendatu”.

Arrantzaka astoa
sendatu da gaixoa.
Eskerrik asko amonari
eta bere kataplastari.
Geroztik gure Olentzero
herrira jaisten da urtero.





HIRIONDO ikastola

Baiona

4. eta 5. urtekoak
Erakaslea Irene Borda

OLD TOY TRAINS (HAUR MAITEA)

Roger Miller © Sony/ATV Tree Publishing
Avec l'aimable autorisation de Sony/ATV Music Publishing (France)

Olentzero jausiko da
Eguberri ospatzera
herrira etorriko da
haur maitea lokartzeko tenorea da

Zure begi ninia
zeruko izarren idurikoa
goxoa, lasaia
gauaren isiltasun miresgarria

Mari Domingi, maiteena
erne eta abilena
harekin agertuko da
haur maitea lokartzeko tenorea da


Negu hotz eta iluna
argitzeko , berotzeko
ikatzka da hoberena
haur maitea lokartzeko tenorea da

Bihar goizean, haur polita
zure amets ederrenak
gauzatuko direlakoan
haur maitea lokartzeko tenorea da





ANITA L.



ZATO OLENTZERO



Solstizioa da gau luzeena,
hotzaren etorrera,
ekaitz txarren hurbiltzea
tristeziaren nagusitzea ...
Hau egun iluna !



LARGENTÉ eskola

Baiona

CM1 - CM2

Artista Patxi Amulet

Erakasleak Maritxu Leizagoyen, Maite Duboué

Zato, zato Olentzero !
Negua baita hasiko
gure bazterrak arras hoztuko .
Kargatu astoa ta jautsi zolara
gure etxeetara zabaltzeko
berotasuna !

Denborak finkatu du leienda
Olentzero guztiz zahartu
lehen, ikatz egilea,
orai opari emalea
Horra gure jauna !

Urtean zehar behin jausten da
haurrei poza banatzera
bainan urte osoan
denok gogoan gorde dugu
Olentzeroren oroimena

BAIONA HANDIKO eskola

Baiona

CM1 - CM2

Erakaslea **Maialen Franchessena**


DIN DAN DON

Din dan don, din dan don!
Eguberri on!
Zorion, zorion!
gabonak, din-dan, don!
Din dan don, din dan don!
Eguberrion!
Zorion, zorion, Gabonak Gabon!

Antxon eta Peru, artzain buruzuri,
izarrari jarraika biak datoz arinka.
Menditik barrena, haurtxoarengana,
artzain bakoitzak darama arkumetxo bana.

Din dan don...

Eskoletako lagunak gira
hunat etorriak zuen agurtzera
Olentzero da gure lekuko
bake ta zorion zuei eskaintzeko





NOAINGO SAN MIGUEL eskola

Nafarroa

D ereduko abesbatza

Erakaslea **Lionel Barkos Beloki** , **Estitxu Gastesi Ibarra**
Noaingo Musika eskolako zuzendaria **Garbiñe Sertutxa Azkarate**

HATOR HATOR

hator neska-mutil etxera
gaztaina ximelak jatera
gabon gaua ospatuzeko
aitaren ta amaren ondoan
ikusiko duk aita farrezka
amaren poz atseginez.

eragiok mutil aurreko danbolin horri
gaztainak erre artean
gaztainak erre artean
txipli-txapla- pum!!!
gabon gaua pozik igaro daigun!!!

eragion neska aurreko danbolin horri
gaztainak erre artean
gaztainak erre artan
txipli-txapla- pum!!!
gabon gaua pozik igaro daigun!!!



BAIONAN KANTUZ

Baiona



ZEREN ZEREN

Mendietan elurra ari da
zuhaitzetan haizea azkarra
artaldea ahuntz eta ardi
ni bezala dira orai jautsi

Zeren zeren
gaur da ospaturen
lur guzian Olentzero
Olentzero !

Poztu gaiten haur eta burraso
poztu bai lurreko Herri oro
zerua bezala lurra ere
maitasun distiraz dadin bete !
Aizkorra bizkarrean ezarriz
zarpan dut zuretzat gauza ainitz
panpina eta jostagailuak
hau dena nahi baitu gaurko gauak !





JULES FERRY eskola

Baiona

CE2

Erakaslea **Oihana Olasso**

OLENTZERO

Olentzero jin zauku menditik herrira
zahar gazte guzien alegeratzera.
Utziz mendian elur
euri ta haizeak
aise nahiago ditu supazter pindarrak

Olentzero ! Olentzero ! X2


Baionako herria baitzaio pollita
gaur hemen afaltzeko gelditzen omen da
esne broskatua du
horrek bere friko
eta gaztain erreak ditu maite asko

Olentzerok irri bat beti haurrendako
bere bizar haunditik ditu aterako
eta bere zarpatik
du berdin botako
prestu diren haurrentzat onon goxo asko





DENAK ELGARREKIN



OLENTZERO PORRUSALDA

- 1 Olentzero joan zaigu mendira lanera
intentzioarekin ikatz egitera
aditu zuenian eguberri zela
lasterka etorri da berri ematera

*Horra horra gure Olentzero
pipa hortzetan duela, eserita dago
kapiak ere baditu arraultzetxuekin
bihar askaritzeko xahakuarekin, xahakuarekin !*

- 2 Olentzero begi gorri
nun harrapatu duk arrain hori ?
Ziburu ondoko arkaitzetan
bart arratseko hamaiketan

3 Olentzero buru handia entendimentuz jantzia,
bart arratsean edan omen du hamar arroako
zahagia.

Ai, urde tripa handia! Tralaralala, tralaralala. X2


Ai, urde tripa handia! Tralaralala, tralarala.

Ai, urde tripa handia sagar ustelez betea.

4 Inolaz ezin dugu Olentzero ase
bakarrik jan dizkigu hamar xerri gazte
saieski ta solomo, makina bat heste
Eguberri da eta alaitu zaitezte.

*Horra horra gure Olentzero
pipa hortzetan duela, eserita dago
kapoiak ere baditu arraultzetxuekin
bihar askaritzeko xahakuarekin*

*Horra horra gure Olentzero
pipa hortzetan duela, eserita dago
kapoiak ere baditu arraultzetxuekin
bihar askaritzeko xahakuarekin, xahakuarekin !*





ici et ensemble  PYRÉNÉES GASCOGNE



DUHALDE PANPI
Charpente & Construction Bois



Assistance Technique Informatique



Pierre Oleiza
éleveur - artisan



ekar



Crédit  Mutuel

Jean
Goyty
plâtrerie - isolation

 LOREZIA 



«CARRÉMENT GOURMAND»



JPEG STUDIOS
PHOTOGRAPHES PROFESSIONNELS



courtage en financements - Assurances - Placements





Proiektu hontan parte hartu duten ikastola, eskola eta elkarteak :

Baionako *Malégarie* eskola - *Oihana* Ikastola - *Jules Ferry* eskola - *Baiona handiko* eskola - *Hiriondo* Ikastola
Jean Moulin eskola - *Largenté* eskola - *Largenté* kolegioa - *Marracq* Kolegioa - *Cassin* lizeoa - *Villa-Pia* Lizeoa
Cassin BTS Audiovisuel Lizeoa - *Etxepare* Lizeoa - *Haiz'egoa* - *Baionan Kantuz* - *Buhaminak*.
Iruñako *Lau Urrats* dantza taldea eta Noaingo *San Miguel* eskola



antolatzailea  organisateur
www.olentzerorenlagunak.eu

